



Gaur, euskara praktikatu
Bihar, euskaraz bizi!

**Gernika-Lumoko
Mintzodromoa**

etorri
parte hartu
hitz egin

Mintzodromoa



Nola egingo dugu ?

Mintzodromo hau egiteko **launaka** eseriko gara mahaietan. 4 **mintzagai** izango ditugu eta mintzagai bakoitza **15-20 minutukoa** izango da. Gai bakoitzean mahaiz aldatuko gara.

Mahaiz aldatzeko ondoko argibideei jarraitu behar zaie:

- Hau da taldez talde mugitzeko erabiliko duzun zenbakia.
- Bigarren mintzagaia hasten denean zenbakiak esango dizu zenbat mahai aurreratu behar duzun.
- Hirugarren mintzagaia hasten denean berdin jokatu dugu.

>1> Maskotak

Lurralde batzuetan, txakur kopurua handiagoa da haur kopurua baino; gainera, gero eta ohikoagoa da etxe txikietan mota honetako animaliak izatea.

1. Baduzu maskotarik edo izan duzu inoiz? Zein?
2. Zer iruditzen zaizu hiriguneetan txakurrek izandako gorakada? Neurriak hartu behar direla uste duzu?
3. Zein onura eta kalte ditu txakur bat etxean izateak?

>2> Lanbideak

Gizartea eraldatu ahala, lanbide berriak ere sortzen dira. Gaur egun, esaterako, sare sozialetatik bizi den jende mordo dago; lehen sektorean, aldiz, gero eta gutxiago.

1. Zure ikasketek eta orain duzun lanbideak, badute erlazorik?
2. Zer iritzi duzu *Youtuber* edo *TikToker* -ei buruz? Aipatu lanbide horren alde onak eta txarrak.
3. Gaur egungo egoera ikusita, zer ikastera animatuko zenituzke zure seme-alabak?

>3> Zaintza eta osasuna.

Estresatuta bizi omen gara, eta oso denbora gutxi eskaintzen diogu “gure burua zaintzeari”. Halere, gai honen inguruko kontzientzia areagotu da, bai lan munduan, bai kalean.

1. “Azken urteotan, arazo mentalek gora egin dute”, ados zaude baieztapen horrekin?
2. Tarterik hartzen duzu egindakoa baloratzeko eta horretaz hausnartzeko? Noiz eta nola?
3. Zer zaintzen duzu gehiago: osasun fisikoa edo mentala?

>4> Eta orain zer?

Ikasturtea bukatzen ari da, eta balorazioa egiteko momentua da. Ziurrenik, gorabeherak izan dituzu urtean zehar, baina bizipen gozoak ere izan dituzu. Beraz, elkarbanatu zuen esperientziak eta hitz egin etorkizunari buruz.

1. Ikasturte honetan, zein izan da ahaztuko ez duzun momentu edo pasadizo bat? Positiboa zein negatiboa.
2. Aurten ikasitakoarekin, euskaraz aritzeko aurrerapausoa egin duzula uste duzu?
3. Datorren ikasturtera begira, zein aurreikuspen dituzu? Euskara praktikatzen jarraituko duzu?